

BALIO PROPOSAMENA

Antsietaterik gabe ikasteko kontzentrazio, planifikazio eta erlaxazio-teknikak irakasten dituen aplikazioa eskaintzen dugu. Batetik, ikasterako garaian bestelako aplikazioak blokeatzen ditu eta larrialdietako deiak bakarrik onartzen ditu. Gainera, eguneko planifikazioa egiten laguntzen du eta hainbat metodo eta deskantsoak proposatzen ditu. Deskantso hauetan hainbat aplikazio erabiltzeko aukera ematen du baina denbora zehatz bat igarotzean berriro blokeatuko ditu.

Beste enpresengandik bereizten gaituena da zerbitzu asko aplikazio berean eskaintzen ditugula. Laguntza mota desberdinak ematen ditu, bai ikasketeten alorrean eta baita osasun mentalean ere.

Azkenik, ikasketa eraginkorragoa burutu ahal izateko, Study-smarter VIP aukera sortu dugu: azalpenak irudi edo bideoekin emateko aukera du, 5 ariketa baino gehiago zuzendu ditzake. Gainera, klase partikularrak eskaintzen ditu, eta psikologo birtuala du.